

Martin Ugalde: "Euskarak ezin du oinez ibili, dagoeneko Korrikaren belozidatea behar baitu"

J. Olaeta

Egin, 1993-04-04.

Euskara izango da gaur aktualitate informatiboaren protagonistarik handiena. Eta, euskararekin batera, "Egunkaria"ko Administrazio Kontseiluko Buru den Martin Ugalde. Gazte adintsu honek, korrikaren lekukoa eskutan eta euskaltzale oste bat atzean, AEK-k antolaturiko lasterketaren azken kilometroa egingo du Bilbon. "Asteaz mintzo"n euskarari buruz hitzeging du, noski, baina baita aktualitatearekin zerikusirik duen beste hainbat gaiari buruz.

Asteko aktualitatea errebasatzen hasterakoan, ezinbesteko dirudi PSF-k Estatu frantseseko hauteskundeetan jasotako jipoia aipatzea...

- *Zer deritzozu?*

- Frantsesek arazo sakona dute. PSFren porrota ezin zen aurreikusi orain dela sei hilabete eta are gutxiago orain dela urtebete, baina sozialisten astakeria politikoez eta batez ere krisialdi ekonomikoak horretara eraman dute. Kontua da Espainako pronostikoa antzekoa dela.

- *Hainbestekoa?*

- Beharbada ez, baina martxa hori daramate.

- *PP-k irabaziko balu, zer gertatuko litzateke?*

- Hor dago koxka, zeren eta Frantzia eskuina askoz zentratuagoa baita. Espainan, berriz, ez dago horrelako zentzurik.

- *Eskubiratze prozesu honek nolako ondorioak ekar ditzake Euskal Herrira?*

- Arazo da ez garela elkarrekin lan egiteko gai. Sakabanatuta ezin dugu gauza handirik lortu. Oraindik ere ez dugu ikasi. Nere ustez, hurrengo hauteskundeek erakutsi behar digute denok onartu behar ditugula gutxienezko batzuk elkarrekin aurrera joan ahal izateko.

- *Posible al da?*

- Hori da nere ametsa. Beti egin dut horren aldeko borroka, bai PNVn, baita EAn ere. Nik probatu dut elkarrekin lan egitea posible dela. Datorren igandean ospatuko dugu Aberri Eguna, abertzaleen batasunari buruz erreflexionatzeko aukera ederra.

- *Borroka armatua dela eta, uste al duzu negoziazio-prozesua laster berririk dela?*

- Beharko. Hitzegin gabe ezin dira hemen gauzak konpondu.

- *Italian, Espainian, Euskal Herrian... ustelkeria nagusi...*

- Ustelkeria beti-betidanik esistitu da. Historia, lekuko. Baina azkenaldian gero eta maizago ari da agertzen. Jendea hasi da nazkatzen eta agian ez da botoa ematera joango. Abstentzioa oso handia bada, ustekabe politikoren bat gerta liteke.

– *Inkesten arabera, herritarrok ez gatoz bat Administrazio autonomikoaren gestioarekin...*

– Ez da harritzekoa. Ni neu ere ez nator bat. Ez dut gestio guzti-guztia deskalifikatu nahi, baina, egia esan, Eusko Jaurlaritzak jende gehienaren sentsibilitate oso urruti dagoela uste dut. Horra hor euskararen kasu adierazgarria. PNV eta PSOEn arteko ituna kontraturatuta da, eta jendea hasi da aspertzen.

– *PSOE eta EEK bat egin dute azkenean...*

– Bai. Hauteskundeetan, dena den, behera egingo dute, seguru. Batuketatik ez da PSOE ez den zerbait sortu. Pena ematen dit Onaindiak. Burgosekoa zela eta, batzuek, nik neuk, errespetu gizon horri. Pena ematen dit, pena...

– *Aita Lasa ezagutzen al zenuen?*

– Bai, gizajoa herriaren aldeko mila errezu egin du mendi hartan. Joan zaigu, denok joango garen bezala.

– *Eta Paul Dutournier, Sarako alkatea?*

– Baita ere. Kontrabandista zela esaten ziotenean, berak ukatu egiten zuen. "Ni ez naiz kontrabandista. Gauzak Euskal Herriko toki batetik bestera daramatzat. Besterik ez", erantzun ohi zuen. Kotxeko gurgilak egokitu zituen mendiko gurdi-bideetan zehar ibili ahal izateko. Herria maite zuen eta, nahiz eta alkatetzan eta Administrazio frantseseko beste postuetan ihardun, euskalduna zen eta euskarari lagundu zion. Guk ere, hor botata egon ginenean, oso lagun ona izan genuen. Nik ez dakit abertzale zen ala ez, baina abertzale bezala jokatu zuen.

– *Don Juan?*

– Egia esan, ez dut kasu handiegirik egin. Ajuriagerra psikiatraren heriotzak, berriz, hunkitu nau. Zientzi-gizon abertzale handi bat joan zaigu eta gutxi da aipatu.

– *Aste Santuak esanahi berezirik al du zuretzat?*

– Bai, gaztetan nahikoa errebelde izan naiz, baina beti sinistu dut. Aste Santua oso polita izan da beti neretzat. Mutil koxkorra nintzela, bospasei irrati baizik ez ziren Andoain osoan. Horietako bat nere aitaren lagun baten etxean zen, eta aitak hara eramane ohi ninduen Zazpi Hitzak entzutea. Orain ez dut gauza handirik entzuten. Venezuelan, berriz, bai.

– *Eta oroimenetatik aparte?*

– Beti pentsatu izan dut Aste Santua erreflexionatzeko oso momentu aproposa dela. Azken batean, garrantzi handiko gauzak gertatu ziren duela 2.000 urte.

– *Errusiako saltsari buruzko iritzirik al duzu?*

– Sistema batetik bestera ezin da kolpetik pasa. Laguntza asko behar dute, eta Mendebaldetik ez zaie behar besteko laguntzarik ematen. Bestalde, zapalduta zeuden herriak hasi dira altxatzen. Hori ere ikusi beharko lukete hemengo sozialistek, han gertatu dena hementxe bertan gerta bailiteke. Eta gertatuko da. Nik behintzat hala espero dut.

– *Ieltsin gogoko al duzu?*

– Ez, egia esan, harro xamar ikusten dut eta. Gorbatxof nahiago nuen, baina, badakizu, herriko gauzak oraindik ere ez dugu garbi ikusten eta ez gara aldamenekoekin hasiko.

– *Zein da azkenaldian gehien inpaktatu zaituen berria?*

– Inpaktatu ez dakit, baina adierazgarria iruditzen zait Madrilgo Unibertsitateko gazteek Felipe Gonzalezi egin zioten berebiziko eraso. Eta gizonak burua makurtu behar izan zuen. Hori oso seinale handia da, neretzat, oso adierazgarria.

Azken kilometroetako mezua

Korrikaren azken kilometroak egiten hasi baino lehen, erreflexio bat, azken orduko "mezua" eskatu diogu Martin Ugalderi... "Euskal Herriak –dio– aurrera atera behar du euskara, baina ez orain arte bezala, hau da, euskaldun-itxura egiten, Jaurlearitzak askotan egiten duen bezala". ugalde oso kritiko da Eusko jaurlearitzaren jokaerarekiko. Beharrez, azken batean Jaurlearitza bera da "Egunkaria" bezalako proiektu bat ekonomikoki ito nahian.

"Orain ezin dugu euskara oinez jartzen hasi; euskara korrika jarri behar dugu, euskarak, egun, Korrikaren belozidade hori behar duelako. Egia da inoiz baino kontzientzi handiagoa dagoela gure herrian, baina baita inoiz baino urrutirago joan behar dugula, zeren eta aldameneko hizkuntzak gero eta indartsuago baitira".

Ugalderen hitzak ez dira xamurrak politiko gehientzat. "%90 ez da euskaraz ezer esateko gauza, eta euskaraz egiten duen askok ere ez du apenas erabiltzen. Eta ez da hain zaila izango, zeren eta kanpotik etorritako gazte asko eta asko, berriz, hor ari dira euskaraz, barra-barra eta primeran. Horrek ematen dit poxa".

Allik Nafarroan euskararekiko izan dituen detaileak –orain dela gutxi Euskaltzaindiaren beste bilera batean hartu zuen parte– ontzat ematen ditu Martin Ugaldek. "Nik uste dut hori oso onuragarria dela. Beharbada Juan Cruz Alli bere politika ari da egiten, baina, aldi berean, agian nahi gabe, Euskal Herrira hurbiltzen ari da eta, nere ustez, neurri batean behintzat, deskubritzen hasi da, herri bat garela ezin baita ukatu. Neure aitona bera nafarra zen, liberala, eta bigarren gerrate karlistan Gipuzkoara etorri eta azkenean Hernanira ezkondu zen. Gertatzen dena zera da, jende askok geure historia ere ez duela behar bezala ezagutzen".

Etorkizunari begira pozteko motiburik badela uste du Martin Ugaldek. "Begira Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinadorak berak nolako lana egin duen azken urteotan eta egun egiten duen Erriberan bertan. Nere ustez, alde horretatik kontzientzi berri bat ari da sortzen. Aurrerantzean horrexek emango digu behar dugun arnasa".